

TESCOko (Mexiko Estatua) irakaslea MGEPn

2009/03/05

Alfredo Hernández, Coacalcoko Goi Mailako Ikasketetako Teknologikoko (TESCO) irakaslea, Industria mekanika eta produktzio departamentuko irakasleen taldean integratu da, Industria Ingeniaritzako 5. ikasmailako ikasleei ematen zaien Galdaketa eta Moldeaketa Teknologien ikasgaiari.

Egoera erdi-solidoan konformatzeko material berri optimizatuen diseinua eta lanketa garatzen dituen proiektuan ere parte hartzen du. Era berean, irakasleen egonaldiarentako truke programetan ere hartzen du parte Doitasunezko Mekanizazioko eta Metrologiako arloetan. Bestalde, ikerketa proiektu bateratuak, I+T, etengabeko prestakuntza eta enpresekiko harremanei buruzko proiektuak garatu nahi ditu.

